



TXAPELKETA NAGUSIKO BERTSO ONENAK HITZETIK HORTZERAN ETA BERTSOA.COM-EN

Txapelketarekin batera iritsi da Hitzetik Hortzeraren denboraldi-hasiera. Finala igaro arte, igandeetan eta astelehenetan bertsoez gozatzeko aukera izango da ETB1en. Bertsoa.com-ek, berriz, ohi bezala zuzenean eskainiko ditu saioak. Eta behin saioak bukatutakoan, ahalik eta azkarren eskegiko ditu bertsoaldi onenak.

Hasi da Bertsolari Txapelketa Nagusia eta, ohi bezala, jarraipen berezia egingo zaio hedabideetan. Bertsozale Elkarteak ere lagundu nahi du zabaltze lan horretan. Hala, Txapelketarekin batera hasi da Hitzetik Hortzeraren denboraldia ere. Saioretan gertatzen dena ahalik eta azkarren kontatzeko, Txapelketa dirauen bitartean igandeetan arratsaldeko 15:00etan eta astelehenetan 23:15ean ikusi ahal izango da programa ETB1en. Finalurrekoetan, berriz, zuzenean edo diferituan ere ikusi ahal izango dira programak. Behin txapelketa bukatutakoan, ohiko formatura itzuliko da programa.

Bertsoa.com berritua

Interneten ere leku berezia izango du Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Ohi bezala, Bertsoa.com-ek saioak zuzenean eskainiko ditu eta, behin bukatutakoan, ahalik eta azkarren sareratuko ditu bertsoaldi onenak. Aurtengoan, gainera, ahalegin berezia egingo du eta parte-hartzaileei egindako elkarrizketak eta kulturgingintzako eta adituen asteroko gogoetak ere tartekatuko ditu. Librea kooperatiba txikiak eta Bertsozale Elkarteak elkarlanean egiten duten atarian, gainera, atal berezi bat izango du Txapelketa Nagusiak eta bertan izango dira ikusgai aurrez aipatutako edukiak. Bertsozale.com atari berrituarekin ere etengabeko lotura izango du.



ARKAITZ ESTIBALLES
2013-08-07, Aia

Gaia: "Azken bolada honetan sarri samar ikusi haute, gauetan batik bat, etxeko leihotik zerura begira, zerbaiten bila bezala."

Hilabete bat ez da igaro aita hil zitzaigula, ai eta gauetan esnatu ohi naiz sarritan izerditan blai etxean dauden bere argazki bere arropa ta usai... eta zerura begira nabil ea etorriko den zai. Ama ta biok utzi baikaitu ez senide ta ez anai. Hasera baten bertsoetan ere ia ez nuen egin nahi baina gauero kantatzen diot ta ahal baldin bada alai: berarengatik egiten dut hau ta neregatik ere bai.

Gaztearoan pentsatzen duzu aita beti dela kate hoge urtekin pentsatzen duzu egiten dizula kalte. Gerxeago eredu duzu norbere eskaparate eta aitona eiterakoan berriz familian parte. Ez pentsa gero nik nire aita gorroto nuenik bat'e: maitatzen nuen bere jenio umore eta aldarte. Bene-benetan ta harro diot asko zintudala maite baina ez nekin zenbateraino albotik joan den arte.



Hitzetik Hortzera.//XDZ

Bertsolaritza munduan barrena

Gure buruaren berri emateko eta munduko gainerako bazterretako inprobisazio kantatuaren berri jakiteko asmoz, batera eta bestera ibili gara hilabeteotan. Abuztuan Mexikon izan ziren Iñaki Murua, Miren Artetxe, Blanca Lopez eta Esti Alberdi; irailean bi asteburutan izan zen Elkarteko ordezkaritza Katalunian eta datozen asteetan Madrilen, Galesen eta Sardinian izango gara.

Aspalditik izan du Bertsozale Elkartek munduko kantu inprobisatuak ezagutzeko grina. 2003an antolatutako Kulturarteko Jardunaldien ondoren, Euskal Herritik kanpoko inprobisatzaileekin harremanetan jarraitu dugu. Helburua bikoitza da: alde batetik, bertsolaritzaren berri ematea munduan. Bestetik, gainerako herrialdeetako esperientzietatik irakaspenak atera eta Euskal Herrian aplikatzea. Aurten Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzen denez, aukera izango da beste herrialdeetako inprobisatzaile eta ikerlariak Euskal Herrira gonbidatzeko. Gainera, etorkizunean Kulturarteko Jardunaldiak berriro antolatzeko ezinbestekoa izango da harremanen sarea ehuntzen joatea. Azken aldi bidaia bat baino gehiago egin dute bertsolariek Euskal Herriko mugetatik kanpora.

Udako egonaldiak

Abuztuaren 12tik 25era bitartean Mexikon zehar ibili dira Iñaki Murua, Miren Artetxe, Blanca Lopez eta Esti Alberdi. "Jornada Iberoamericana de niños y jóvenes poetas troveros y versadores" izenekoan parte hartu dute. Karabana batean sartuta, herriz herri

ibili dira. Denera 14 saio eta 10 hitzaldi eskaini dituzte egun horietan. Ordezkaritza zabala izan da jaialdian, Euskal Herriaz gain bertan ordezkaturata egon baitira Kuba, Argentina, Panama, Txile, Venezuela, Kolonbia, Puerto Rico eta Mexiko ere.

Betiko gogoan gordetzeko moduko esperientzia izan delakoan dago Iñaki Murua: "Gu euskal hitzun eta euskaldun sentitzen ginela esaten genuen eta hizkuntza komunitatea zela guk garrantzia ematen geniona. Kantatzen genuen, ez ziguten tutik ulertzen, eta bakoitzak berea itzultzen zuen. Bukatu genuela iruditzen zait zurrunbiloa sortzen zuen delegazio bezala; jendeak bilatu egiten gintuen". Bereziki nabarmendu dute laukotearen barruan lortutako kohesioa. Miren Artetxe eta Iñaki Murua bertsotan aritu zirenez Blanca Lopez eta Esti Alberdi arduratu ziren aurkezpenez eta materialak biltzeaz.

Bertsotan egiteaz gain, beste herrialdeetako inprobisatzaileekin harremanak estutzeko aukera ere izan dute. Gainera, oholtza gainean bestelako inprobisazio moduetan esperimentatzen aritu



dira eta irakaspen bat baino gehiago ekarri dute Euskal Herrira, bai oholtza gainean eta bai bertso-eskoletan aplikatzeko modukoak. Horrez gain, antolakuntza-lanarekin ere harrিতa itzuli dira. Ez zen jardunaldiok antolatzen ziren lehenengo aldia, eta Euskal Herrian etorkizunean Kulturarteko Topaketak egingo balira begiratzeko ispilu egokia izan daiteke.

Dena den, kanpoko esperientziak jasotzeaz gain bertakoa hobeto ezagutzeko ere balio izan duelakoan daude delegazioko kideak. Miren Artetxeren hitzetan, "Halako jardunaldiak badira kontaktu-toki bat, kasu honetan ikusteko mundu latinoamerikarrea zer gertatzeko. Sare guztia ikusarazten dizu han dagoen informazioak. Bestetik, gure burua ezagutarazteko ere garrantzitsua da. Epe ertain eta luzera gure burua ezagutzeko ere balio digu: bertsoaritzaz zertan oinarritzen den, zer konpartitzen dugun... Azpimarratzekoak dira genero-identitatea eta gazteentzat inprobisatzaile izatea zer den. Mexikarrek kontatzen zuten nola hori zaharren kontu bat zen, nola aparte sentitzen ziren... Hor ikusten nuen Iruñeko 17 urteko gazte bertsolari bat, edo Gasteizkoa edo Hendaiakoa. Argentinan raparekin harreman handia daukate, ikusten baitute horri heldu ezean modernitatea eta tradizioaren arteko tentsioan atzera geratzeko direla. Eta, azkenik, guk esaten genuen guk hizkuntza indigena batean kantatzen genuela, haiek ez zutela hizkuntza indigenan kantatzen... Eta Puerto Rico esaten ziguten trova bazela nazio-erakuntzarako tresna bat. Haien sistema kulturalen arma bat zen".

Irailen Katalunian

Irailen Katalunian izan da Bertsozale Elkarteko ordezkari bat. Irailaren 8an Sabadellen bertako txapelketako saio bat entzuteko aukera izan zuten, eta baita Kataluniako inprobisatzaileekin harremanak estutzeko ere. Irailaren 21ean eta 22an ere bertan izan dira Bixente Hirigarai, Gillen Hibarren eta Karlos Aizpurua Euskal Herriari buruz antolatutako jardunaldi batzuetan. "Bertsolari" filma eskaini zen bertan, bertsoaritzari buruzko vermut-tertulia bat izan zen eta glosa eta bertso-bazkaria ere bai. Horrezaz gainera, Bartzelonara joanik Mallorkako inprobisatzaileak ezagutu zituzten, eta kantu inprobisatua eskolan lantzeko Doktore tesia egina duen Albert Casals bera ere. Etorkizunean harremanean segitzeko gogoia eta interesa azaldu ziguten kataluniarrek. Berandu gabe, aurten Bertsolari Txapelketa Nagusia jokatzenez, Kataluniar Herrietako inprobisatzaile zein zaleak (kataluniarrek, valentziarrak zein Balear

Uharteetakoak) Euskal Herrira etorriko dira finala ikustera.

Sardiniako topaketak

Urriaren 18tik 20ra bitartean Inprobisazio Kantatuaren inguruko topaketak egingo dira Sardinian. Euskal Herriko ordezkariak Arrate Illarok eta Jon Sarasuak osatuko dute eta bertso-saio bat eskaintzeaz gain, bertsoaritzaren berri ere emango dute. Bide batez, bertako esperientzien berri jakingo dute.

Madrilgo jardunaldiak

Urriaren 30ean Madrilen izango dira Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Karlos Aizpurua, UNESCO Etxeak eta Madrilgo Unibertsitateak antolatutako ekimen batean. Galizia, Alpujarrak eta Euskal Herriko ordezkariak izango dira bertan. Unescoren Ondare Ez Materialaren izendapenaren inguruko jardunaldiak izango dira.



Mexiko.//Esti Alberdi

Bertsolaritza ikertzeko beka

Miren Artetxek jasoko du Mintzola-Mikel Laboa ikerketa beka. Mintzola Fundazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Mikel Laboa Katedrak elkarlanean eskaintako beka da. Miren Artetxek honako proiektu hau aurkeztu zuen: "Bertsolaritzaren transmisioa eta euskararen gune sinbolikoaren sendotzea. Ipar Euskal Herriko gazteen hizkuntza-identitate eta portaerak". Hiru urterako ikerketa kontratua lortu du eta Ipar Euskal Herrian transmisioan egindako lana eta horren izandako ondorioak aztertuko ditu. Epaimahaian Gidor Bilbao, Andoni Egaña, Juan Kruz Igerabide, Pío Pérez, Jon Sarasua eta Andoni Egaña izan dira. Ikerketa proiektuaren zuzendari lanetan Josu Amezaga ariko da eta Jone Miren Hernandez izango da zuzendari kidea.

Bertsolaritza ikertzeko lehendabiziko ikerketa deialdia izan da honako hau. Bertsozale Elkarteko Iker Planean zehaztutako lerro zehaztutako baten ikerketa bultzatu nahi zen honen bidez. Iker Planaren osaketan Euskal Herri osoan bertsoaritzaren inguruan lanean ari diren 100 eragile inguruk hartu zuten parte.



Puntua jarrita

ANJEL MARI PEÑAGARIKANO

Nik ere errimari buruz hitz egingo dut. Asko esan edo gutxi esan eztabaida hortan ez naiz sartuko. Hori bai, hotskidetasun haundiak gozaten ditu belarriak, non eta beti gaitik ez den irten, eta bideari zuzen jarraitu dion.

Oso atsegin egiten zaizkit aspaldiko hitz joko haiek, Txirritarena adibidez. Bera bi bastoekin eta hanka motz batek galdetu: "Hay mucho de aquí a Pasajes?" eta erantzuna: "Hi eta ni berdin gatxaudek pausajez!". Edo Florentino Goiburuk bertsolari gazte batzuri galdetu zienekoa: "Zemuz gaztek?". Erantzuna "ondo", ta Florentinok "Sasoi hortan zaila eztek!". Edo Joxe Agirrek esan zuena esan ziotenean: "Joxe, gaur ez duzu kobratuko, geroxeago bai Lankutik", eta Joxek: "Bertzolarien bankutik". Edo Lazkao-Txikik Muruari esan zionekoa, baratz kontuan ari zela... "Ezkeiat ez ote dien botatzen *agua de amoniaco*" ta Lazkao-Txikik: "ardoa hobe dek armoniako". Hotskidetasunaren eragin magikoa da hori, belarriak gozatzea alegia.

Eta Txominek puntu hau jarri dik:

Onuzkero ari dek semea azitzen

Berak hain gogoko duenez errima ona, honela erantzungo diot:

L.H . 3 an aspaldi hasi zen, ta amak : "Zaila dala umeak hezitzen! Hi horren edadean hobe ez hitzen! "

Ta nik puntua Telleria lagun zaharrari jarriko diot:


Gure garai haietaz oroitzen al haiz hi ?

Koplak

Lankuren 10. urteurren afari-jaialdia

Lankuk, hamar urte betetzen dituela eta, datorren urriaren 25ean, afari-jaialdi bat antolatu du Itziariko Hostalean, 21:00etan. Bertan afariaz gain, bertso eta musikaz gozatzeko jaialdia izango du hurbiltzen denak. Xabier Amuriza, Joana Itzaina, Andoni Egaña, Sustrai Colina, Oihane Perea eta Oskar Estangak parte hartuko dute. Sarrerak www.lanku.com-en egongo dira eskuragarri 15 euroren truke.

Poto-Finixa



Oinak burura begira

Bertsolari Txapelketa Nagusia/Galder Izagirre-XDZ

"Kafkaren aulkia, irakurraldi bertsotuak" emanaldia aurkeztu du Lankuk

"Kafkaren Aulkia" emankizunean ordu eta erdi inguruko jarduna txirikordatu dute idazle batek eta bi bertsolarik, Pello Ramirezen txeloaren eta akordeoiaren doinuen gainean. Hitz izango da emanaldiaren ardatza: hitz idatzia eta kantatua, neurtua eta laua, bat-batekoa eta patxadaz hausnartutakoa. Bertsolarien jarduna inprobisatua izango da eta idazleak sorturiko errelatoan txertatuko da hark agindu ahala. Lehenengo saioetako egunak ere jarrita daude: Urriaren 17an, Bilboko Bidebarrieta Liburutegian, Azaroaren 3an, Ondarroan kofradia zaharrean, Abenduaren 11an, Deustuko Udaltzegan izango dira."



LANKUK 10 URTE. HAMAIIKA ESKAINTZA

Lankuk 10 urte betetzen dituen honetan, jaso duen argitalpenen uzta Bertsozale Elkarteko bazkide guztion esku ere jarri nahi du. Bere produktu gehienak %50eko deskontuarekin eskuragarri izango dituzue, Txapelketa Nagusiko saioetan eta www.lanku.com-en.